

NORK HIL DU MARY G?

Goitizena: Arno

Saloon baten barnean kokatzen da. Egur hutsez osatutako taberna da: ezkerretara atea, aurrekaldean goiko pisura igotzeko eskailerak ikusten dira eta eskuinetara tabernako barra, apalak kristalezko botilez beteta, noski, diskoteka askotan ikus daitezkeen bezala, agerian. Eskaileren aurrean oholtza txiki bat, musikari edo dantzariak ikuskizun xumeren bat emateko bezalakoa eta haren ezkerretara piano bat, pianola bat. Lurraren gainean, hiru mahai biribil, bakoitzean lau aulki, eta gizon bat, bakero jantzita, noski, pianista, hain zuzen, alde batetik bestera oinez, takoi hotsa eta lurraren karraska sortzen. Mahaietako batean, bi pertsona eserita, kartetan jokatzeko ari dira: pokerrean, musean... nahieran. Tabernaria da, barraren atzean edalontzi bat lehortzen, ekintza amaigabea eszena osoan, Saloon honetako azken pertsonaia, barraren alboan whiskya hartzen ari diren beste bi gizajoez gain. Hormetan bakero famatu batzuen argazkiak ageri dira, Billy Haurra edo Clint Eastwoodenak, esaterako. Hiru leiho ditu gelak, arratseko azken eguzki izpien atezain, eguzki gero eta ezkutatuagoari pasatzen uzten. Jokalariak marmarrean dauden bitartean gizajoak elkarrekin hizketan ari dira

Gizajo 1 – *(Tabernariari)* Ederra zagok, ba, whiskya, ezta? Ona atera diguk, abila yaz txo, abila! *(Gizajo 2ri)* Txo, gainera, entzungo huen sheriffaren azkena, ezta? Nork pentsatuko likek, hain zorrotza, hain gogorra, hain... hain ederra, ezta? *(barrez)*

Gizajo 2 – Isil hadi, matxista zikina, hire whisky lapurreta guztiak barrote tartean jasan dituk eta, ostu eta egunean bertan! Eta, azkena? Nola ez nuen ba azkena adituko? Ez dirudik herri honetakoa, motel. Duela astebete izan zuan hilketa. Jada herri osoak zakik, motel, are gehiago gorpua kanpoan, hor kanpoan, buruan tiro batekin odola zeriola utzi zutenetik! Ni neu ibili ninduan, gainera, garbiketa lanetan, gorputz zikin hark sekulako kiratsa laga zuela eta herrian. Batzuetan han, basamortuan bizi haizela zirudik, kobazuloren batean!

Gizajo 1 – Lasai hadi, motel, ez diat ezer esan eta! Ezta zera balitz ere...

Gizajo 2 – Ez da izango ba? Ea, jada hiriburukoek ere jakin ditek berria, txo! Egunkarian zatorrek argazkia (*barra gainean dagoen egunkariko sheriffaren argazkia, azalekoa, erakuste dio Gizajo 1i*). Laster bidaliko ei ditek berria. Beraz, ostu orain ahal bezain beste whisky botila, gero ezingo duk eta!

Ate biak irekita, giza irudi bat, Rex, sartzen da. Eguzkia gero eta beherago dago eta Rex sartzeko unean bizkarra bustitzen dio, aurrealdea guztiz ilun utziz. Une honetatik aurrera eguzkia gero eta azkarrago jaisten joango da, eszenaren tempoarekin batera. Rex barrarantz doa, zuzen eta inguruko guztiak, ikaratuta eta harrituta, ezer gertatu ez balitz bezala jokutzen dute, baina EZIN dute euren harridura ezkutatu. Pianista berehalaxe pianolara doa, bisiten aurrean itxura egin behar duela eta. Partituren artean, Debussyren Arabesque aurkitu du, eta halaxe jarri ditu eskuak, do#-mi-la do#-mi fa#, baina segituan konturatu da ezin duela hori jo, oraindik konposatu gabe dagoela eta; eta I got rhythm jotzen hasi da, gehiegi pentsatu gabe. Rex barrara iritsi da, zaldi gainean gehiegi ibiltzen denaren pauso motel eta okerrez.

Rex – (*tabernariari, gogor*) Atera iezadak whisky bat.

Esate hutsarekin gelditu egin da dena, pertsonaia guztiak Rexi begira geratu dira, izoztuta. Pianistak jotzeari utzi dio, urduri. Tabernariak basoa atera eta eskura eman dio, isilik. Rexek trago bat hartu du

Rex – Hementxe hil zen sheriff anderea. (*basoa barran uzten du, indartsu*) Tiro bat, bularrean. Gau hartan, ordea, zeuek bakarrik geratu zineten *Saloon* honetan hain berandu arte. Beraz, (*kamerak, kamerarik baldin bada, Rexen begien italiar plano bat hartzen du*) zuetako nork hil du Mary G?

Sartu dun, zorrotz. Sabel alderantz begira zegoela ikusi dun segundo erdi lehenago, kristal aldetik ilargi beteak bustirik eta orain barruan dun, barrura sartu zain, arantza bat edo, hobeto apika, orratz, jostorratz bat bezala muturren aurrean ikusten duen oro zulatuz, eta ez, absurdua dun hori pentsatzea, ondo dakin, gogorrenak ere bala batek jantzia, blusa, azala urratu, zainak ebakiz

sabeleko gantza igaro eta gibela hartzen duenean etxe, gotor, gogorrenak ere atzera egiten duena eta ongi dakin, neska, hi ez haiz ezberdina, hala irudi hezakeen arren, hala izan nahi hukeen arren baina pausu bat egin dun atzera, ilargiak gorputz zati bat gehiago bustitzen dinala, eta ez dun entzuten baina beheko solairuko festak jarraitzen din, tronpeta hotsak, hori eta indefinitu, eta hori dun barruan dunan bala bibrarazten duena, dantzan legez, heuk ere dantza egingo huke baina ez, ez dun unea, hankak atzeraka mugitzen baitzaizkin, pausu bat gehiago emanaz atzera ahulkeriaren sintoma, eta balaren bibrazioak haragia areago zulatzen dinala sentitzen dun, odola edonora isuriz, lurrera, bala-kaskilo gainera, baita ile artera ere, eta ilea espero baino laruago ikusten zain eta ez dun atsegin, neuk ere ez, egia esan, ez dun atsegin hola ikustea ilea eta gutxiago hola hil behar dunala konturatzea, baina tira badakin, hire kulpa dun, mediku hura herritik egozteagatik, hark berehala kenduko linake bala eta josi, eta beste pausu bat eman dun atzera eta hire aurreko hiltzaile horrek ere bai, sua sentitu dun gorputzean, sua sentitu dun begietan berriro begiratu dionanean baina halaxe dun eta indarge sentitu haiz, bizkarra leihoko kristalerian bermatzen saiatu haiz, babesleku; ilargiak orain egurrezko lurra, bertako arma kaskiloa azaltzen ditin, eta pistola eta bere eskua, biluzik, atzeko guztia ilunpetan geratu dela, eta pistolak dirdai egin eta gelako ispiluetara igortzen din argi guztia, dirdaitu eginez, higuigarri horren eskuan, jakingo din zer den ona, jasoko din merezi duena baina orain ezarri bizkarra kristalean, bermatu gorputza, ilargiak hanka bat busti eta hari haginka bada ere egiteko aukera izan arte, baina orain...

Kristalean *Rex Winston*, *sheriffa* jartzen dik. Danbatekoz itxi duk atea. Gauerdian, hire gela uste baino txikiagoa egiten zaik: egurrezko mahai bat eta ohea, ez besterik, ez mugitzeko lekurik, ez ezer. Mahaiko gramola biztu duk, *Take five*, isil, whiskyz betetzen dualarik edalontzia. Tiro bat bezala sartu zaik, beste tiro bat bezala. Mahai gaineko lanpara txikiak ez dik aurpegia bustitzen, ia fundituta dagoela zirudik, baina nahikoa duk, horrekin eta ilargiaren argiarekin.

Nekaturik sentitzen duk heure burua. Ohean eseri eta zigarro bat atera duk. Badakik, ezpain artean ipini duanean, kalte besterik ez diana egiten, zigarro bakoitzak bost minutuko bizia kentzen

diana, baina orain ezin duk besterik egin, ezta? Ez ezak gezurrik esan, ez diat sinesten. Hainbeste kosta zitzaian uztea eta orain... Kea botatzen duk, sortzen duk, alboko desertutik igarotzen den trenak bezala, ikatza garraiatzen, tren huraxe bezala, minatik hirirantz, baina hi minatik herri txiki honetarantz. Amaitu zituan hirikoak, gehiago ez. Lanparatxoa itzali duk. Ilargi izpiek kea jotzean urdinez bustiko liketek giroa, ilberria ez balego. Ilberria... argazkia atera duk patrikatik.

Lanparatxoa biztu duk atzera argazkia hobeto ikusteko. Ajatua, sepia kolorezkoa, neskatxa baten irribarretxoa erakusten dik. Ilbetea balego, ile horia laru ikusiko lukek, eta laruegi irudituko litzaiake, eta irudituko litzaiokek.

Hotza zagok kanpoan, baina tenperatura polita egongo duk, segur, ukuiluan. Ondo lo egin beharko dik zaldiak, bihar egurra emango baitiok, ikatz lapurren bila. Lehen ikusi dituk, minan, langileei osten. Bihar harrapatzea besterik ez zaik geratuko. Baina egongo dituk, noski, tiroak eta zaldi lasterketak. Ez duk sorpresa berezirik jasoko aurpegiko zapia kentzen dioanean, baina... Eta arratsaldean, edo gauez... *Star saloongo* inozo horiek galdekatzen hasi beharko duk, norbait kartzelan sartu beharko duk bada, gorpu harengatik...

Argazkiari begiratu diok berriro. Gero, lanparatxoa itzali ostean, argazkia poltsikoan sartu eta detektibe txapel hori mahai gainean ezartzearekin batera abestia amaitu duk. Ohean sartu haiz, gramolaren orratzak diskoa karraskatzean sortzen duen hotsarekin.

Argi zuriak begiak itotzen, itsutzen ditu

– Hik hil huen, ezta?

Isiltasuna. Ez da karraskarik ere entzuten. Mahai lanpara kendu du begi paretik.

Gizajo 1 – Ez.

Isiltasuna berriz. Begiak bere onera etorri dira. Mahai bat, paper batzuk, hautsontzi bat, enfokatzen ditu mahai lanparak, fokuak; eta Rexen esku zati bat ere hartzen. Beste guztia ilunpean datza. Han atzean kristal bat ikusten da, bestalde ilun eta ezezagunarekin.

Rex – Ez zer? Esan non, norekin, zertan hengoen une hartan eta sinistu ahalko diat,

beharbada.

Burua eskuinera. Gizajo 2 ikusten da aulkian eserita. Izerdia edo negarra, zeuk erabaki. Beldurra behintzat, duda gabea, erabaki ezina. Eskuak aulki atzean lotuak ditu eta ahoan trapu bat, isilik egoteko. Bazen garaia. Eskumuturrak gero eta estuago edo gero eta minduago behintzat, soka ustela... Berriro burua biratu eta Rexen izurrak.

Gizajo 1 – Kortan, zaldiari bazka ematen. Zaldiarekin...

Rex – Gezurrik ez niri, zikin hori! (*zaplaztekoa. Belarrietan piii, pitada*) Hemen zaukaat argazkia, ze uste duk? (*argazkia erakutsi, gau hartako Starreko irudiak, dudarik gabe; gezur gehiagorik ez*) Egia, eta bat badator, sinistuko diat.

Gizajo 1 – Egia... (*pausa*) prostituta bati dirua ematen, *Starren*, goiko ohe batean jo genezan. (*prostitutak egia esango du*) Baina ez da egia aurrekoan esan zenuena. *Saloonean* jende gehiago zegoen gau hartan: musikariak...

Rex – Musikariak beheko pisuan egon zituan, ez zieten gora altxatzen utzi. Herritarrei bakarrik uzten dizuete gora altxatzen, ez nauk inozoa, bazakiat galdetzen eta gauzez enteratzen. Eta goiko solairuan gertatu zuan hura, badakik, hango leiho batetik behera jausi baitzen, badakik hori.. (*eskuaz burua heldu du, nekaturik legez*) Gainera, goiko solairuan aurkitu ditiat une hartan *Starren* zeundeten guztien aztarnak.

Pausa

Gizajo 1 – Nik... nik ez dakit ezer... Nik... bere gorpua jasotzen, ehorztetxera eramaten lagundu nuen eta... horixe besterik... (*Rexek lanparatxoa hartu eta bekokian, bete-betea. Burua jaitsi eta ez tul batzuk, ahots urratu batzuk. Bekokitik odola, edo begitik. Begi zuloa behintzat odolez betetzen ari da, hari bat bezala igarotzen, goitik behera, eta behar baino gehiago geratzen da hor. Negarrez, gorputza mugituz, ahal bezala, aurrera eta atzera*) Ez dakit, benetan, ez... (*pausa*) ...soilik... (*pausa. Gizajo 2ri*) ...esaiok.

Irribarre batez, ahoko trapua kendu dio Gizajo 2ri.

Gizajo 2 – Esan? Nik? Esan zer?

Gizajo 1 – Isil hadi, baboa, eta esaiok hura, tiroarena.

Gizajo 2 – A, zera, tiroarena? Bai, zera... gelan nengoela...

Rex – *(besoa goian, beste zaplada emateko prest)* Ze gelatan, noiz eta non? Hori interesatzen zaidak, ez besterik...

Gizajo 2 – Bai zera... bigarren solairuan, hau ezkerreko gelan zegoen, zera... gora igo eta hiru gela daude ezkerretara, bat karenka eta bete bi eskuman. Gu ezkerretakoetan geunden, hau 3.ean, komun alboan, eta ni haren albokoan, 2.ean, aurrez aurreko gela ukitzen duenean. *(pausa, Gizajo 1en odola tantaka, lurreko putzua osatzen, apurka)* Nightbirdeko neskekin geunden biok, hau ilehoriarekin, zera... Zelda eta ni Elizarekin. Proba dezakegu, galdetu eurei, zin...

Rex – Ez nahastu. Zer?

Gizajo 2 – Eeee... zer esango dut ba? Elizarekin nengoen, badakizu, gozarazten... *(barre)*

Burua biratu, eta Gizajo 2ren inozo barrea. Nardagarria, buruan irudikatze hutsa. Atorratik kanpora tripa, handia, izerdiz bustitako ileak ikusten dira, erakusten ditu. Aulkia hautsi dio buruan. Merezita. Behera begiratu eta putzua handitzen, tantaka tantaka. Pausa handia.

Gizajo 2 – Ba... *(arnasestua)* horixe... *(pausa)* tiro hotsa entzun genuela *(noski, ezer ez zen entzun, sartaldeko azkarrena da-eta hau. Baina ez, Mary hil zuen tiroaz ari da bestea).*

Rex – Ongi, nahikoa da. Eta orain, zera... *(Gizajo 2ri zorrotz)* ez hartu inor inozotzat, gizajo hozkil hori. I-en esan dik Gizajo 1ek, whiskyak ni ez nagoela osteko. Arazo bat daukak orain. Ostu duan botila bakoitza banan bana sartuko...

Iritsi haiz minara. Menditik eguzkia sartzen ikusten duk. Kapelaz begiak estali dituk, minik egin ez diezaan Laster iritsiko dituk. Zaldia behean utzi duk, lasai. Goizean ostua minako zulo batean gorde ditek, ikusiko ez dualakoan. Tristeia, bai.

Zulo barrura sartu haiz, eta poltsa hartu duk. Ikatza. Apur bat mugitu eta azpian, poltsaren pisua azaltzen duen arrazoia: urrea. Minako langileek lantzean behin aurkitutako urre zatiak osten ditiztek. Janda zegoan. Urrearen oldarra zaukatek hauek, errearen estasia.

Eguzkia gorri bilakatu duk dagoeneko. Hiru gorputz soilik bustitzen ditik orain: hire zaldia, eta bi zaldun, euren zaldiekin, bi gorputz osatuz, han behean. Hi kobazulo barruan hago, ordea. Eta gorantz hasi dituk, eguzkiak zeharka jotzen duen urrearen bila.

“Zer, dena libre ala?”. Segundo erdi lehenago bota duan tiroak zerraldo bota dik lapurretako bat, haren bihotza lau puska higiezinetan banatuz, ilunpetan zail ikus daitekeen odol putzuaren gainera. Kauboi kapela tipiko horietakoa, gorputz ohiak zeraman hura, zulatu dik hurrengo tiroak. Eta aurrera begiratuta begi hutsak ikusten dituk, zapi batez estalirik duen aurpegi bat. Nahikoa, ordea, haren beldurra igartzeko.

Behera jo dik, zaldi bila, hik ere berdin, urre poltsa eskuan. Bakoitzak bere zaldia hartu eta orain bi puntu zarete lurrak erdibitzen duen eguzkiaren aurrean, korrika, iheska bata bestearen atzetik. Hasi duk pianoa. Egia esan, beste lapur ustel haren gorpua jausi denean hasi duk; orain sopranoa.

Bi zaldi, desertuan korrika. Ez zagok besterik inguruan. Sokekin batera hasi dituk tiroak. Lapurrak atzera begiratu dik, begietara, zuzen. Tiroa, ordea, huts joan duk, eskuinaldera, hik atzean utziz. Bizkorrago hoa, baina asko geratzen zaik oraindik zaldiari buztana zapal diezaioan.

Itzalak bizkorrago doazela zirudik, luzeago bai behintzat. Gongaren kolpearekin batera beso batean sartu diok berun zatia, bete betean. Odola isurtzen zoazte biok, oraintxe bertan saihetsetan sartu dian tiroarekin. Lasai, ez zagok inor inguruan, ez dik inork entzun.

Bi zentimetrora daukak. Hel iezaioak buztana, eta salto bere gainera. Zaldi hotsak, eta biok lurrera erori zarete. Eguzkia jausi duk, lur azpian gordetzera, eta haren izpi soilak besterik ez dituk geratzen, nahiko elkar ikus dezazuen.

Hautsez, odolez, lurrez nahasturik duk gorputza. Kapela urrun geratu zaik, lasai, neuk emango diat geroago, orain emaiok tiroa. Emaiok, benetan, apuntatzen hutsak ez dik ezertarako balio. Ikusi duk nor den, oraintxe esan diok: “ikusi nahi diat basamortuan hiltzen utziko dudan hurrengoaren bisaia” eta erakutsi dik, bai, edo hobeto esanda heuk kendu diok zapia tabernariari. Baina lasai, ez duk deus lortuko lokietara apuntatu eta “mundu guztiak adarra jo nahi dit ala?” deiadar egite

hutsarekin. Bat batean, ilargia eta haize hotza, hiriko detektibe kapela, izur idorrek eta ator zuria mugitzen, uste baino lehenago egin dik gaua. *Diminuendo* batez isildu duk.

Gymnopedie No. 1. “Zertan habil hemen?”. Begietan malkoak ikusi dizkiok. Akorde minorrak. Ez dik ezer esaten. Bota iezaiok tiroa. Ez, hobeto galdetuz gero... “Heu izan hitzen, ezta?”. Haize hotzak mina eman dik, gogor saihetseko zaurira sartu zaianean. Haren minak plazera eman dik hanketan beste berun zati bat sartu dioanean, begien formak, malko xumeek. *Da capo*. Ez dik ihes egingo, hago lasai. “Heuk hil huen, ezta? Zertan ibili hintzen gau hartan? Esan!”. Hodeiek ilargia estali ditek, ezin duk haren aurpegia ikusi, sufrimendua, heriotza hurren duenaren keinua.

“Ni... ni behean egon nintzen, edalontzia garbitzen, neuk esaten dizut”. “Ez duk erraza, ez, hala bada, goiko solairuko pasilloan hire atzamar markak dituen amantala aurkitzea”. “Aaaa... bai... komunera joan nintzanean bertan utzi nuen, ahaztuta... baina zinez, ez nuen nik hil. Are gehiago, erraz froga diezazuket: galdetu musikariei, jokalariei... han zeuden guztiek ikusi zuten Mary G. goian zen bitarte guztian ni behean izan nintzela. Areago, Mary G.k berak eskatu zidan gora joateko baimena, gizon batekin zegoela, mesedez ea joan zitekeen, eta nik baietz erantzun nion, nola ez, sheriffa zen, kanpotar batekin bazegoen ere, eta han joan ziren, gora...”. Pausa luzea. “Gainera...”. Lehen akordea.

Danba, ederki itxi diok tiroz ahoa. Zaldira igo eta ihes egin duanean, orduantxe entzun duk bigarren akordea.

Beste geletan ere sumatzen dun zarata. Gortinak itxita, ilunpean zatzan gela, “ez” eta “bai” etengabe, eztabaida mingarria zain baina are mingarriagoa eman berri dinan zaplaztekoa, zinez, aurpegiko makillajeak sortzen zinan hazkura kendu din, une batez; eta esango dion, nahi dunana esango dion baina “ordaindu egingo didak, zikina, bai ala bai” eta potroetan eman dionan ostikadak segundo batzuk gehiago irabazteko besterik ez din balio izan, “zerbitzuak ordaindu egin behar dituk!”, eta orduantxe atera din, tamalez, pistola, beheko solairutik tuba hasi dun eta gortina zabaldu dunanean, gela erdi agerian utziz, uste dun klarineteak hasi direla.

Mahaia irauli, eta karta guztiak lurrera. Harrituta, burua biratu eta Rexen aurpegi izurtua. Mahai irauliaren gainera detektibe kapela bota du. Jokalari 2ri heldu eta Salooneko paretaren aurka bota du gogor. Korrika, ateraino. Baina tiroa hankara.

Rex – Zuek, ezta?

Jokalari 2 – Guk zer?

Rex – Hainbeste bider esanda, ez daukat berriro errepikatzeko gogorik.

Pausa. Ahoa lehorra, ezkerreko hankan mina. Baina hitz egin behariko.

Jokalari 1 – Guk ez dugu inor hil, zin dagit! Gu gora joan ginen, bai, baina... Lotara soilik. Galdetu musikariei, eurek esango dizute, baita tabernariak ere, edo pianistak berak... Goian bizi gara eta musika amaitzean joan ginen gora, lotara, ez genekien zer gertatu zen...

Pausa. Jokalari 2 aske utzi du. Isilik geratu da, pentsakor. Leihotik sartu den haize apurrak aurpegian jo du.

Rex – Agian hau guztia utzi eta... hasieratik egin behar nuena egingo dut... *(Jokalariei)* Banoa Segi zuenean, seian ibiltzen.

Lurrean etzinda, sekulako mina. Txistua bota eta txalekoan sentitu du Rexek. Bizkarra ematen eta oinez gelditu gabe, berun zatiak azala kraskatu eta giharrak igaro ditu, eskuineko hankan, eta hotzikara hezurra ukitzen sentitzean. Rexek atea zeharkatu eta isiltasuna urratu da, pianista berriro jotzen hasi baita, Rexek hala eskatuta.

Odol putzua dago hor erdian, behin, mendebaldean. Herriaren erdian, huts dago kalea eta bi figura besterik ez dira ausartzen kalean. Eguerdiko bero galgatan, gortinen atzean ezkututzen da herria, babes bila baina zelatan. Lantzean behingo haize boladek ez dute sargori gorriaren astunkeria bi figuren gaineratik, herriaren gaineratik kentzen, eta, asko jota, belar bolaren bat bietako baten oinetara jaurtitzea lortu du. Aho-soinua entzuten da, urrunean. Tronpa batzuk. Bi figuren itzalek, jabeek bezala, ez diote elkarri begiratzen. Heriotza soinua sumatzen da.

Gitarra elektrikoa. Oinetatik gora, bietako baten aurpegia ikusten uzten du eguzkiak. Aurpegi lohia, lehorra, urteek lehortua. Detektibe txapel tipikoa darama egunero gutxiago sentitzen duen ilea estaltzen. Betiko jantziak: alkandora zuria, marroi antzeko galtzak, luzeak, eta hiriko zapatak, hirian erabili ohi zituenak. Atzamar dorpeetan eusten dio errebolberrari. Buelta eman du.

Puntu bat da horizontean, Rexentzat. Hurreratuz gero, ordea, Rex baino hamar bat urte gazteago den figura ikusten da. Ez biboterik, ez ezer, aurpegi lohia eta kauboi txapel hutsa besterik ez daraman buruan. Alkandora urdina, jeansak, mendebaldeko bota luzeak, gogorrak. Urrunean ez da besterik. Herri osoan Rex eta pianojolea besterik ez daude, parez pare, elkarrengandik urruti. Jokalari 2 izango da epailea. 10 metrotara jartzeko esan die, elkarren parez pare. Eta 10 segundo. Korua hasi da.

Rexek erretzeko gogoia, 9, *Arabesquen* azken akordeak gogoratzen pianojolea, 8... baina bien buruak, berehala, bat eginda bezalaxe gogorapen bakarrera zuzendu dira, 7, *Klarinete soloa entzun dun, eta bizkarra hutsik: leihoa irekita zagon*, 6, *atzera hoa, motel, ilargiak gela areago bustitzen din*, 5, *eta lantzean behingo haize boladek jantzia fereka gozoz mugitzen din ate gorputzean, hanketan*, 4, Rexen plano italiarra, pianojotzailearen plano italiarra, 3, *lurrean zauriturik zetzanak salto egin zion gainera eta ilunpetan ezkutatu ditun, borrokan*, 2, *lurrera jausi aurretik bateriaren azken soloa, Starkoak, abesten abesten abesten, eta ilargiak busti berri dituen bi figurak borrokan, detektibea eta pianojotzailea, bataren atzamar luzeek bestearen ezker eskuari, errebolberrari gogor eusten diona, heltzen*, 1.

Rex – Hasieratik egin behar nian. Hasieratik nekian heu hintzena, ez nian beste inor bilatu behar.

Pianojotzailearen gorputza odol putzutun blai. Rexen aurpegiari begiratzen dio. Gorroto begirasuna.

Rex – Orain heu haiz hiltzailea.